

2024.07.01



Lezoko parke sarea eraberritzen

Eraldaketarako proposamena

Sustatzailea:




Lezoko Unibertsitateko Udala

Talde teknikoa:



Aixin Zolua 5, 20304, IRUN
Harrobi Plaza 5, 2, 48003, BILBO

hiritik-at@hiritik-at.eus
www.hiritik-at.eus



EUSKAL HERRIA PLAZA

INTERBENTZIO PROPOSAMENA

Lezoko haur parke erabiliena, zentralena eta honenbestez nagusiena. Herrian estalitako haur parkerik ez dagoenez, eremu honeri estalpea jartzea erabaki da. Eta kontutan hartuta beste haur parke guztiak estalperik gabekoak direla, hau guztiz estaltzea da proposamena. Honetaz gain, parke inklusibo bat izate aldera, mugikortasun urriko pertsonentzako jolas elementua gehitu da. Estalitako eremuan leku librea geldituko da jolas librerako.

IRIZPIDE NAGUSIAK:

- Muturreko eguraldien aurrean haur parkea erabili ahal izateko estalpea izatea.
- Haur parke inklusiboa izatea.

GUNE/ELEMENTUAK:

> MUGIKORTASUN URRIKO PERTS. ELEMENTUA

Herriko erreferentziazko parkea izanik elementu inklusibo bat behintzat txertatzea beharrezkoa da. Bi motatako kolunpioa izan daiteke, aukiarekin ala ranparekin.

> LURZORUA

Lurzoruan, erorketen inpaktua ekiditeko egun beste elementuek duten antzerako kautxozko lurzorua jartzea aurreikusten da. Piramidearen zonaldeko egungo eremua kendu eta zonalde horretan lurzoru unifikatu bakarra jarriko da.

> ESTALPEA

Estalpearen beharra nabarmena izanik ere, pena puntu bat ematen duenez holako eremu bat estaltzea, egitura aukeratzeko orduan ahalik eta egitura eta estalpe arin eta argitsuena izatea izango da lehentasuna. Hori dela eta, altzairuzko egitura eta lonazko estalpe tentsionatua izango dira aukeraturako materialak estalpe berrirako.


GAUR EGUNGO EGOERAREN ARGAZKIAK



AURREKONTU ESTIMAZIOA (instalazioa barne)

> MUGIKORTASUN URRIKO PERTS. ELEMENTUA	5000 €
> KAUTXUZKO LURZORUA	6000 €
> ESTALPEA	80000 €
> KALITATE KONTROLA - OSASUNA ETA SEG. - HONDAKINEN KUDEAKETA (guztiaren % 5)	4550 €
> JOLAS ELEMENTUEN HOMOLOGAZIOA (guztiaren % 1)	1000€
KONTRATA AURREKONTUA GUZTIRA (BEZ GABE)	96550 €
KONTRATA AURREKONTUA GUZTIRA (BEZ BARNE)	116825 €

ERREFERENTZIAK



MUGIKORTASUN URRIKO PERTSONENTZAT ELEMENTUA




ESTALPEA

LEHENTASUNA:

Eraberritzeak gauzaterako orduan, **lehentasunezko eremu moduan** definitu da. Herriko parke batek behintzat estalpea edukitzea lehenetsi da.

PROPOSAMENAREN PLANOA



ALTAMIRAKO PARKEA

INTERBENTZIO PROPOSAMENA

Altamira auzoko aspaldiko eskariei erantzunez igerileku ondoan geratzen den jolas parkea guztiz eraberritzea proposatzen da. Oso zaharkituta eta egoera nahiko kaxkarrean dago jolas eremua. Auzoan dagoen beste haur parkea, konfigurazio tradizionalakoa da, horregatik gure proposamena beste honentzako, belardia berreskuratzea eta material naturalak erabiliz, lurrarekin, hondarrarekin eta osatuko dugun zirkuituarekin jolasteko bestelako parkea eraikitzea da.

IRIZPIDE NAGUSIAK:

- Lur zoru originala berreskuratu, belardia, eta honen gainean ezarri jolas parke berria material naturalak erabiliz; egurra, harrizkak, hondarra eta ura.
- Gaur egun jolas parkearen inguruan dagoen hesia eta jolas parkea guztiz kendu.

GUNE/ELEMENTUAK:

> LURREZKO MENDIXKA

Menditxo bat eraiki lurra pilatuz, alde batera igotzeko elementuak ezarri, egurrezko xaflak eskailera moduan eta soka eta beste aldean tobogana. Jolas aktiboko zirkuituaren parte litzateke. Toboganaren iritxiera eremuan, harrizkaz osaturiko irlatxo bat ezarri, toboganetik libre utzi beharreko eremua nolabait delimitatuz.

> OREKA ZIRKUITUA

Enbortxoak modu bertikalian, enborrak modu horizontalian eta sokak erabiliz, oreka bidea osatu, mendixka eta toboganarekin batera oreka zirkuitua osatuko duena.

> ESKULANETARAKO ETXETXOA

Gordeleku moduan edo eskulanetarako baliogarria izan daitekeen egurrezko etxetxea. Eremu naturala proposatu dugu, belarra, harrizka eta hondarrarekin elementu hauek guztiak aproposak izanik eskulanetarako.

GAUR EGUNGO EGOERAREN ARGAZKIAK



AURREKONTU ESTIMAZIOA (instalazioa barne)

> HONDAR LURZORUA	1600 €
> MENDIXKA + TXIRRISTA + IGOTZEKO ELEM. + HARRIXKA LURZORUA	8000 €
> OREKA ZIRKUITUA	6000 €
> ESKULANETARAKO ETXETXOA + HARRIXKA LURZORUA	4500 €
> ERAISPENAK ETA LUR MUGIMENDUAK	2500 €
> KALITATE KONTROLA - OSASUNA ETA SEG. - HONDAKINEN KUDEAKETA (guztiaren % 5)	1330 €
> JOLAS ELEMENTUEN HOMOLOGAZIOA (guztiaren % 1)	266 €
KONTRATA AURREKONTUA GUZTIRA (BEZ GABE)	29196 €
BEZ (%21)	6131 €
KONTRATA AURREKONTUA GUZTIRA (BEZ BARNE)	35327 €

ERREFERENTZIAK



MENDIXKA + TXIRRISTRA



OREKA ZIRKUITUA




LEHENTASUNA:

Eraberritzeak gauzterako orduan, **lehentasunezko eremu moduan** definitu da. Parkearen egungo egoera kaxkarra eta auzoaren beharra lehenetsi dira.



ESKULANETARAKO ETXETXOA



LOPENE PLAZA

INTERBENTZIO PROPOSAMENA

Plazak oro har balorazio positiboa jaso badu ere bertan dagoen jolas parkearen inguruan bai guztiz birgaitzeko nahia jaso da. Oso zaharkituta dago, egoera nahiko txarrean. Hori dela eta, espazio oso egokia izanik ere haurrekin egoteko gaur egun ez du erabilera haundirik. Ondorioz, plazako beste eremuak, saskibaloia, teqball eta gimnasiarako elementuak bere hortan uztea da proposamena, baino parkeko jolas elementuak guztiz berritzea.

IRIZPIDE NAGUSIAK:

- Plazako berdeguneari ere jolaserako erabilera emango zaio. Jolas parke mixto bat sortzea da ideia, lurzoru gogor eta berdegunearen zati bat hartuko dituen.
- Prozesuan zehar hain demandatuak izan diren salto salto eta kabi kolunpioa eremu honetan kokatuko ditugu.
- Eremu gogorrean kautxuzko lurzoria kokatuko denez, material hau baliatuko dugu erliebearekin jolas egin eta altuera ezberdinetako mendiak sortzeko.

GUNE/ELEMENTUAK:

> KAUTXUZKO MENDIAK

3 mendi proposatzen dira, hiruak tamaino ezberdinetakoak. Haundienaren barrualdean tubo bat ezarriko da eta gaineko aldean txirristra, beste bietara aldiz, soka bidez igo ahal izango da.

> SALTO SALTOAK

2 salto salto ezarriko dira, kautxoaren aldean, altuera pixka bat emango zaie azpialdera behar duten sakonera izan dezaten. Salto saltoak diametro eta forma ezberdinetakoak izan daitezke.

> KABI KOLUNPIOA

Elementu hau ere kautxuaren aldean kokatuko da, beharrezko segurtasun distantziak utziz.

> BELARDIAREN EREMUA

Eremu honetan eskuhartze ttikia proposatzen da, gure iritziz, ongi bait dago eremua. Hala ere, jolas parkeari jarraikortasuna emate aldera zonalde honetan, lotu egin behar dira bi aldeak, erdian dagoen koxka ezabatuz eta trantsizioa ezarriz. Alderdi honetan, "gordelekuak", etxetxoak edo tipiak kokatzea proposatzen dugu haurrek askotan nahi izaten duten intimitatea aurki dezaten.

GAUR EGUNGO EGOERAREN ARGAZKIAK



AURREKONTU ESTIMAZIOA (instalazioa barne)

> KAUTXUZKO MENDIAK/LURZORUA + TUBOA + TXIRRISTA + SOKAK	29000 €
> KABI KOLUNPIOA	3500 €
> SALTO SALTOAK (2)	10000 €
> ETXETXOAK (2)	6000 €
> KALITATE KONTROLA - OSASUNA ETA SEG. - HONDAKINEN KUDEAKETA (guztiaren % 5)	2425 €
> JOLAS ELEMENTUEN HOMOLOGAZIOA (guztiaren % 1)	600 €
KONTRATA AURREKONTUA GUZTIRA (BEZ GABE)	51525 €
BEZ (%21)	
KONTRATA AURREKONTUA GUZTIRA (BEZ BARNE)	62345 €

ERREFERENTZIAK



KAUTXO EREMUKO MENDIAK - TUNELA - SALTO SALTOAK




ETXETXO - TIPIAK



KABI KOLUNPIOA

PROPOSAMENAREN PLANOA



LEHENTASUNA:

Eraberritzeak gauzaterako orduan, ez da lehentasunezko eremu moduan definitu, epe ertainean gauzatu beharrekoa baizik.

PISBEKO NATUR EREMUA

INTERBENTZIO PROPOSAMENA

Lezoko egungo haur parkeak aztertu ditugunean, ondorio garbia atera da hasiera hasieratik, guztiak dira konfigurazio tradizionalekoak eta material artifizial eta gogorreko osaturikoak. Hori dela eta, azterketa hau burutu dugunean, behin eta berriz eskaturikoa izan da eremu naturalagoan kokatzea parkeren bat eta bertan doazen elementuak inguruarekin bat egitea. Horrela, haurrak egunerokoan kontaktu gehiago izan dezaten naturarekin. Pisbeko eremua, herrian bertan kokatua dagoen natur eremua da, beraz, baldintza guztiak betetzen ditu horrelako jolas parke bat bertan kokatzeko. Lehendik zegoen merenderoa osatzea eta biziberritzea da beraz interbentzio honen helburu nagusia.

IRIZPIDE NAGUSIAK:

- Merenderoa osatu, mahai eta banku gehiago jarritz, iturria eta zakarrontziak.
- Merenderoaren ondoko partzela baliatu jolas parkea bertan ezartzeko eta honek eskaintzen duen maldatxoa erabilita tobogan parkea ezarri.
- Interbentzioan natur material ezberdinak erabili haurrak eskuekin jolasteko aukera izan dezaten; hondarra, harrixkak, egurra...

GUNE/ELEMENTUAK:

> EGURREZKO MIKADOA

Elementu egokiak dira adin ezberdinetako haurrentzat, gora behera, salto, oreka eta eskalatu moduko ariketak gauzatzeko. Tamainu eta tipologia askotarikoak daude, baina egurrezkoa izan behar da eta lurzoruan hondarra kokatuko genuke.

> TOBOGANA

Haurrak asko eskatzen duten elementua, herrian zehar tobogan ttikiak badaude baina haur koxkorragoentzako tobogan haundixeagoak ez. Horregatik partzelak eskaintzen duen maldatxoa baliatuz tobogana kokatzea da proposamena.

> ENBORTXOAK + SOKAK + EGURREZKO PLATAFOMA

Tobogan eremuetara igotzeko hiru modu ezarriko dira, bakoitzaren trebezia edo adinaren arabera modu bat edo beste erabiltzeko. Soka, enbortxoak eta egurrezko plataforma izango dira hiru moduak.

> MERENDEROA

Gaur egungo merenderoa osatu egingo da, mahai eta banku gehiago, iturria, zakarrontziak eta bizikleta aparkalekuak kokatzea proposatzen dugu. Erretegi bat kokatzea ere baloratu daiteke.

GAUR EGUNGO EGOERAREN ARGAZKIAK



AURREKONTU ESTIMAZIOA (instalazioa barne)

> EGURREZKO MIKADOA + HONDAR LURZORUA	30000 €
> TOBOGAN 1 + HARRIXKA	12000 €
> ENBORTXOAK + SOKA + PLATAFORMA	6000 €
> MAHAI ETA BANKUAK (3) + ITURRIA + ZAKARRONTZIAK + BIZIKLETA APARKALEKUA	6000 €
> KALITATE KONTROLA - OSASUNA ETA SEG. - HONDAKINEN KUDEAKETA (guztiaren % 5)	2200 €
> JOLAS ELEMENTUEN HOMOLOGAZIOA (guztiaren % 1)	600 €
KONTRATA AURREKONTUA GUZTIRA (BEZ GABE)	46800 €
BEZ (%21)	
KONTRATA AURREKONTUA GUZTIRA (BEZ BARNE)	56628 €

ERREFERENTZIAK



EGURREZKO MIKADOA + HONDARRA



TOBOGANAK + IGOTZEKO ELEMENTUAK




LEHENTASUNA:

Eraberritzeak gauzaterako orduan, **lehentasunezko eremu moduan** definitu da. Herrian parke natural baten beharra lehenetsi da.



MERENDEROA

PROPOSAMENAREN PLANOA



TIROLINA EREMUA

INTERBENTZIO PROPOSAMENA

Edozein lekutako haurren eskaera nagusia tirolina izan ohi da ia gehienetan. Lezon badira urte batzuk badagoela bat baino inguruaren mantenu falta dela eta ez zaie oro har oso erakargarria egiten tirolina kokatuta dagoen eremua. Hori dela eta, tirolina dagoen lekuan uztea, baino inguruaren zainketa eta biziberritzea da eremu honetarako proposatzen duguna. 8-10 urtetik aurrerako gaztetxoek eskaeren artean egon dira, zenbait kirol urbano (eskalada, parkour, kalistenia...) egiteko lekua eta egoteko espazio intimoagoa izatea. Horregatik, egoki ikusi da tirolinaz gain, espazio honetako horma erabiltzea rokodromo bat sortzeko eta ingurua egokitu egoteko leku goxo eta intimo bat izateko.

IRIZPIDE NAGUSIAK:

- Tirolinari beharrezko mantenu lanak egin bai baino dagoen bezala utzi.
- Hormigoizko pareta erabili adin guztietako haurrentzako presak jarriz eta rokodromo bat sortuz.
- Forma ezberdineko, banku-graderio-eszenalekuak eraiki egoteko txoko ezberdinak sortuz.
- Oro har espazioaren mantenua intentsifikatu, belarra maizago moztu eta utzikeri sentrazioa ekidin.

GUNE/ELEMENTUAK:

> ROKODROMOA

Presak erosi eta hauek horman kolokatzea besterik ez litzateke behar. Interbentzio ttikiarekin eremu erakargarri bat sortzeko aukera dago.

> L FORMAKO BANKUA + ESZENALEKUA

Rokodromo eta tirolinaren artean egoteko leku bat sortze aldera, bai tirolinari begira edo bai rokodromoari begira, eserita, etzanda, bakarka edo taldean egoteko estantzia polibalente bat sortzea da ideia, L formako graderio ttiki bat eta eszenaleku-plataforma itxura duen bi egurrezko egitura sortuta.

> BANKUAK

Hiru banku kokatuko genituzke tirolinaren beste aldean. Eremu berriari begira egoteko edo bidean paseatzen zoazela atsedean gune moduan erabiltzeko.

GAUR EGUNGO EGOERAREN ARGAZKIAK



AURREKONTU ESTIMAZIOA (instalazioa barne)

> ROKODROMOA	3000 €
> L FORMAKO BANKUA	8000 €
> ESZENALEKUA	8000 €
> BANKUAK (3)	4000 €
> KALITATE KONTROLA - OSASUNA ETA SEG. - HONDAKINEN KUDEAKETA (guztiaren % 5)	1150 €
> JOLAS ELEMENTUEN HOMOLOGAZIOA (guztiaren % 1)	200 €
KONTRATA AURREKONTUA GUZTIRA (BEZ GABE)	24350 €
BEZ (%21)	
KONTRATA AURREKONTUA GUZTIRA (BEZ BARNE)	29463 €

ERREFERENTZIAK



ROKODROMOA



L FORMAKO BANKUA + ESZENALEKUA




LEHENTASUNA:

Eraberritzeak gauzaterako orduan, **lehentasunezko eremu moduan** definitu da. Inguruaren biziberritzea eta gaztetxoaren beharrak lehenetsi dira.



BANKUAK

PROPOSAMENAREN PLANOA



ZUBITXO

INTERBENTZIO PROPOSAMENA

Ez da gainerako leku gehienak bezala hurrei eskeinitako eremu espezifiko bat baino hasieratik azterketa honetan sartu beharreko lekua izatea erabaki da. Izan ere, urarekiko gertutasuna, espazio freskoa, egoteko leku gordea izatea eta espazioak herrian duen zentraltasuna baloratu dira.

Honetaz gain, Ur agentziako proiektu baten baitan, uholdegarritasun kontuengatik zenbait lan egitera doaz bertan eta proiektu hori gauzatzera doazela aprobetxatu nahi da momentu berean prozesu honetatik ateratako zenbait eskakizun ere gauzatzeko. Izan ere, zenbait elementu oso zaharkituta daude eta birgaitze bat beharrezkoa da eremuan.

IRIZPIDE NAGUSIAK:

- Urera sarrera egokitu, haurrentzako errezagoa bihurtuz, baino aldi berean beharrezko diren lekuetan hesiak jarriz, segurtasuna areagotuz.
- Ur agentziako proiektuarekin bat datorren proposamena osatu.
- Zaharkituta dauden hainbat lurzoru eta hiri altzari ordezkatu.

GUNE/ELEMENTUAK:

> ESERLEKUA ETA GRADA

Goiko eremuko bankuak ordezkatzeko proposatzen da banko perimetral batengatik, horrela uretara ikuspegia irabaziz. Graden egitura konpondu hormigoiarekin eta zurezko xaflarekin estali esertzeko eremu goxoagoa izateko.

> ZUHAITZEN EREMUA

Sustraiantzako leku gehiago utzi, uraren aldera zein graden aldera berdegunea jarriz eta horrela muga moduan ere erabili daiteke eta baloratu ia hesia jartzea ekidin daitekeen.

> HESIAK

Zubitxoan hesia jartzea bai beharrezkoa ikusten da, extua baita eta kontutan hartuta haurrak ibiliko direla bertan arriskutsua izan daiteke.

> URERA SARRERA

Urera sarbidea, ur agentziako proiektuko eremutik egitea ikusten dugu egokien, hau da, zubiaren beste aldetik. Bertan egongo baita ur ondoan egoteko eremua.


GAUR EGUNGO EGOERAREN ARGAZKIAK



AURREKONTU ESTIMAZIOA (instalazioa barne)

> ESERLEKUA ETA GRADA	8000 €
> ZUHAITZEN EREMUA	2000 €
> HESIAK	2000 €
> KALITATE KONTROLA - OSASUNA ETA SEG. - HONDAKINEN KUDEAKETA (guztiaren % 5)	500 €
KONTRATA AURREKONTUA GUZTIRA (BEZ GABE)	9500 €
BEZ (%21)	
KONTRATA AURREKONTUA GUZTIRA (BEZ BARNE)	14495 €

ERREFERENTZIAK



BANKO PERIMETRALA




BANKO PERIMETRALA



LEHENTASUNA:

Eraberritzeak gauzatzeko orduan, **ez da lehentasunezko eremu moduan** definitu. Hala ere, lan hauek Ur agentziakoekin batera egiteko koordinatu beharko liratezke.

PROPOSAMENAREN PLANOA



MULTIKIROLA EREMUA

INTERBENTZIO PROPOSAMENA

8 urtetik gorako haurren portzentai handi baten eskaria izan da multikirol kantzarena, gehienbat mutilen aldetik etorritakoa. Ariketa aktiboa egitea garrantzitsua da, baita haurretan ere, horrenbestez horrelako espazioak egokiak dira. Hala ere, kontutan hartu behar da, guk multikirola deitzen badiogu ere, orokorrean futbolari eskainitako eremuak izaten direla eta kirol honek eskola patio eta espazio publikoetan hartzen duen presentzia eta eragiten duen genero bereizketa. Hori dela eta, ez gara horrelako eremuak jartzearen kontrakoak baino bai oso kontutan hartzen dugula non kokatu eta zein zentralidade eman.

Honenbestez, eskakizun hau azaldu denean, kokapen egokia bilatzea izan da prozesuan landutakoa. Hasieratik argi gelditu da, polikiroldegia ingurua izan zitekeela aukera bat, hor bait daude kirol ekipamengu gehienak, herriaren zentrotik hurbil dago baino aldi berean ez da eremu zentral bat eta ez dio inori eragingo eragozpenik baloiaren presentziak.

Proposatzen dugun tamaina ez bada oso handia ere, uste dugu momentuko eskaerari erantzuteko nahikoa izan daitekeela eta gerora ingurunea (gizarte bilgunearen proiektuarekin) berritzen joaten den heinean baloratuko da ia nahikoa den eremu hori edo polikiroldegia beste aldean eremu haundiago bat eduki dezakeen.

IRIZPIDE NAGUSIAK:

- Benetazko multikirol kantsa bat ezarri, futbolaz gain beste kirolak praktikan jartzeko aukera ematen duena; eskubaloia, saskibaloia, tenisa, voley, badminton, etab.
- Hesitua, inguruan dabilizatenei baloi eta pilotakin ahalik eta eragozpen guttien sortzeko.

GUNE/ELEMENTUAK:

> MULTIKIROL KANTXA

Bai hesiaren materiala eta bai lurzorua tipologia ezberdin askotarikoa izan daiteke. Aurrekontuan sartutakoa belar artifiala duena eta inguruan Wpc materialez osatutako da.

GAUR EGUNGO EGOERAREN ARGAZKIAK



AURREKONTU ESTIMAZIOA (instalazioa barne)

> MULTI KIROL KANTXA	36000 €
> KALITATE KONTROLA - OSASUNA ETA SEG. - HONDAKINEN KUDEAKETA (guztiaren % 5)	1800 €
KONTRATA AURREKONTUA GUZTIRA (BEZ GABE)	37800 €
BEZ (%21)	
KONTRATA AURREKONTUA GUZTIRA (BEZ BARNE)	45738 €

ERREFERENTZIAK




MULTIKIROL KANTXA



LEHENTASUNA:

Eraberritzeak gauzaterako orduan, **ez da lehentasunezko eremu moduan** definitu. Beste eremuen eraberritzeak, lehenetsi dira.

PROPOSAMENAREN PLANOA



ARALAR PARKEA

PROPOSAMENA

Hasieratik prozesu parte hartzailean txertatuta egon bada ere, prozesuaren bukaeran ez dugu proposamen konkretu bat partekatzeko oinarririk ikusten.

Eremu honek bi zati nagusi ditu, bata goikaldean, non haur parkea kokatzen den, eta bestea beheko aldean, non plaza huts bat dagoen. Goiko eremuko parkea oro har ongi baloratua izan bada ere, zenbait elementuren mantenua edo berritzearen eskaria egon da. Baita argiztapena hobetzearena ere. Beraz, eremu honetarako eskakizun horiek martxan jartzea da gure proposamena.

Beheko aldeari dagokionez, prozesuan zehar eraldaketa hemen ematea izan da gure ideia. Elementurik gabeko eremua, funtzio konkreturik ez duena eta aktibitate berri bat ezartzeko aproposa. Parkour, kalistenia, egoteko lekua, multikirol kantxa, pump track....hainbat izan dira prozesuan zehar bertarako baloratutako ideiak baino aldi berean ideia batek ere du kontsentsu haundirik eduki.

Honenbestez, goiko eremuko haur parkearen mantenua eta elementu konkretuen berritzea bai baino behe eremurako ez da proposamen berririk txertatzen.

XOXOLUR NATUR EREMUA

PROPOSAMENA

Natur eremu bat da, mendialdean kokatuta eta bertara pasiatzera joateko ohitura dute Lezotarrek. Prozesuaren bukaerako ondorioa izan da, ondo dagoela eremua dagoen bezala eta ez dagola inongo beharrik bertan haurrei bideratutako interbentziorik egiteko. Gehienez ere, banku, mahai edo zakarrontzirenbat jartzea izan da prozesuan zehar jasotako ideia.

GAUR EGUNGO EGOERAREN ARGAZKIAK




GAUR EGUNGO EGOERAREN ARGAZKIAK



EKINTZA PLANA

Ekintza plana garatzerako orduan, prozesu parte hartzailean egindako leheneste ariketak, eremu bakoitzaren egungo egoera eta udalaren aurreikuspen ekonomikoak hartu dira kontutan.



* ZUBITXON EGIN BEHARREKO LANAK UR AGENTZIAKO PROIEKTUAREKIN BATERA KOORDINATU BEHARKO LIRATEZKE, HORREGATIK EZ DUGU EKINTZA PLANEAN KOKATU

Sustatzailea:



Lezoko Unibertsitateko Udala

Talde teknikoa:



Aixin Zolua 5, 20304, IRUN
Harrobi Plaza 5, 2, 48003, BILBO

hiritik-at@hiritik-at.eus
www.hiritik-at.eus